



Oinatz Bengoetxeak aurrera, eta Abel Barriola txapelketatik kanpo

LEITZA ▶ Bengoetxea VI.ak 22-2 irabazi zion Imanol Agirrerri Tolosan, eta Eskuz Banakako Pilota Txapelketaren final-zortzirenetan da

EZINEAN ▶ Berragerpenean, Barriolak min hartu zuen eskuan eta ezin izan zuen pilota gozatu; 22-7 galdu zuen Iñigo Leitzarekin ▶ 7



Eskola Kirola Egunarekin esan diote agur etxeko txikienek Kirol Asteari

ASTEASU ▶ Eskola Kirola Egunarekin amaitu da Asteasuko Kirol Astea. Aste guztian bezala, atzoko ekintzetan ere gaztetxoak izan ziren protagonista. Goizean goiz ekin zioten egunari neska-mutilek, Asteasuren eta Zizurkilen arteko futbol partidarekin. Gero, hainbat jolasetan aritzeko eta gaitasunak lantzeko aukera izan zuten: trebetasuna, bizkortasuna, abiadura, hesiak saltatzea, baloi pisutsuak erabiltzea, slalom-a baloiarekin... I. GARCIA ▶ 6

LIZARTZA ▶

Frantziako espetxe politika «hiltzailea» salatu du Etxerat-ek

Agerraldia egin dute Haimar Altuna lizartzarraren eta harekin preso dauden Zubizarreta eta Goitiaren ingurukoek ▶ 7



EUSKALTELEKOA EZ BAZARA,
EZ IRAKURRI
5. orrialdea.

UZTURRETIK ▶ AMAIA AGIRRE

Mar Bella



Ez dakit zertaz idatzi nahi dudana, egia esan. Dirua, gezurra, zorientasuna... Denak lotuta doazela iruditzen zait askotan. Marbellak itsaso ederra du, baina galipota nagusi itsas ertzean. Agintarien iruzurrei dardien pozoinak itsusitu egin du aberatsen topalekua.

Pertsona oro ilargiaren modukoa omen da. Alderdi bat beti ezkutuan. Dirua tartean denean arriskua beti gertu izaten da. Beti

entzun izan dut diruak ez duela zorientasunik ekartzen, baina lagutzen du zorientsu izaten, ezta? Zorientasuna ezin erosi daiteke diruz, baina diruz erosten diren gauzek zorientsu egin dezakete bat. Edo? Nik hala uste dut. Dirua seigarren zentzueren modukoa dela iruditzen zait. Dirurik gabe ezingo genituzke beste bost zentzuak garatu. Erabili bai, noski, baina horien dohainez nahi bezala gozatu ez, ziurrenik.

Egia da diruak hitz egiten duenean egia isildu egiten dela. Ez al da hori berbera gertatu Marbellan? Ez al da hori berbera gertatzen beste leku guztietan? Baietz esango nuke. Dirua beti hor dago, patrikak dira aldatzen diren bakarrak. Lastima da gure sakelek hor parterik ez izatea. Diru

beltza eta esku zuriak. Horra hor zuri-beltzeko pelikula. Diruaz mintzo garelarik denok erlijio eta sinismen berekoak gara. Hor ez dago ezberdintasunik. Hor ez da eztabaidarik sortzen.

Baina zorientasunak eta diruak elkarrekin zer ikusirik ez dutela pentsatzen dutenei ere ez diet arrazoia kendu nahi. Arrazoi bat eman nahi diet euren diskurtsoa hobetzeko, sendotzeko: zorientasunaren sekretua ez datza beti nahi dena egitean, egiten den hura maitatzean baizik. Nor joaten da lanera gustura? Hori da zorientasuna, noski baietz. Lanera diru truk joaten gara, ados, baina hilabete bukaera iritsi arte ezin gara zorientsu izateko zain egon, ezta? Lasai, gaur jai da. Zorientsu izan.

ESANAK ▶



XABI FERNANDEZ BELA

«Arrisku handiko uneak bizitu genituen, ur asko sartu baitzen gure ontzian»

«Olinpiar Jokoak dira orain nire lehentasuna. Beste baterako utziko ditugu Amerikako Kopa edota Munduko Kopa bezalakoak. Hori bai, gustura errepikatuko nuke bizi dudan esperientzia»

'El Diario Vasco' (2006-03-21)





MARA VARELA HEGATS IGERIKETA

«Hasieran hegats bakarra ondo astintzea eta mugimenduak ondo koordinatzea kostatu egiten da. Tamaina hartzen diozunean, ordea, ez da hainbesterako»

'Mugi' (2006ko martxoan)

TOLOSALDEKOHITZA. INFO ▶

Planik egin al duzu Aste Santuko oporraldirako? Zer egiteko asmoa duzu egun horietan?



GUTUN@K ▶

Tolosa existitzen da eta, gainera, informatu egiten du

Errealitatea kolore arrosakoa dela errepikatzen digu Esther Larrañaga (PNV) Gizarte Ongizateko diputatuak, eguna joan eta eguna etorri. Baina hori ez da hala Tolosan eta eskualdean. Azkenaldian egin dituen adierazpen batean baino gehiagotan diputatu andreak hau esan du: «Gipuzkoan erresidentzia batera sartzeko itxaroteko denbora 52 egunekoa da, batez beste».

Diputatu andreak ondoto dakienez, neurri estatistikoki hori oso engainagarria da, errealitateari buruzko informazio gutxi ematen baitu. Hala, itxaroteko batez besteko 52 egun horiek —bi eskualde hartzen baditugu, irakurlea zenbakiekin ez aspertzeko— 54 egun izan daitezke eskualde batean, eta 50 bestean; batez besteko nahiko orekatua ematen dute. Baina 100 eta 4 ere izan daitezke; horrek ere 52ko batez bestekoa ematen du, baina argi dago errealitate guztiz desberdina erakusten duela.

Tolosako errealitatea 52 egun horietatik oso urrun dago. Izan ere, azkenaldian hilabete batzuk itxaron behar dira, Udaleko Gizarte Ongizateko zerbitzuetako txostenak azaltzen duen bezala. Gutxitasun-mailaren, familiako egoeraren eta abarren aldagaien arabera da hori, eta lurramendi egoitzan sartu den azken kasuetako batek berretsi du. Egoitza hori aukeratu zuen lehenak baremoan 45etik 32 puntu zituen, eta 2005eko otsailan egin zuen eskaera. Urrirako egoera jasanezina zen, eta, beraz, Betelun sartu zuten. Han egon da 2006ko otsailaren erdi aldera arte, eta, ondoren, lurramendi egoitzan sartu zuten. Beraz, 365 egun «baino ez».

Itxaron zerrendek emandako datuak ere Tolosako errealitateetik oso urrun daude. Hala, Foru Aldundiak Extraneten ematen dituen datuen arabera, 2006ko urtarrilaren 26n, 29 lagun zeuden itxaron zerrendan, Tolosan eta eskualdean —Tolosako Udalaren Gizarte Ongizateko zerbitzu teknikoan datuen arabera—. Gainera, eskaera egin eta balorazioa egitearen zain daudenak kontuan izaten baditugu, eta Tolo-

sako erresidentziaren batean plaza bat libratu bitartean beste eskualde batzuetako erresidentzian daudenak eta egun Tolosako lurramendi egoitzan gehiegizkoak direnak ere aintzat hartzen baditugu, errealitatean 60 pertsona baino gehiago direla ohartuko gara. Diputatu andreak emandako zenbaterakoaren bikoitza baino ez.

Guk uste dugu —eta, dirudenez, ez gara bakarrak, prentsan azkenaldian irakurri dugunagatik, alderdi batzuei (Aralar, PP) ere kontuak ez baitzaizkie ongi ateratzen, eta Caldera ministroak ere horiekin bat egin du— diputatu andreak itxaron zerrenda horiek izendatzeko aurkezpen guztietan erabiltzen dituen kalifikatzaile-sortaren ordeze —itxaron zerrenda teknikoak, itxaron zerrenda erreala, itxaron zerrenda operatiboa, eta abar— hobe izango litzatekeela beste adjektibo batzuk erabiltzea; hain zuzen ere, itxaron zerrenda batez besteko itxaronaldi bete gabeak, akastunak, trukatuak, faltsuak.

MANU LEUNDA
(GERONTOLOGIKO BERRI BATEN ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN) ▶ TOLOSA

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Laborategiak. Hurrengo deialdiak teknikoak, unibertsitate laguntzaileak, ospitaleak. 943 31 37 82.
Mantentze-lanak. Mekanikariak, gidariak. Hurrengo deialdiak udalexe eta Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Elbarrituak.

Hurrengo deialdiak Foru Aldundiarentzako. Informazioa doan. 943 31 37 82.
Gipuzkoako Foru Aldundiak behar ditu: sukaldari laguntzaileak, obra zaintzaileak, gidariak, haurtzaindegiko hezitzaileak, basozainak, garbitzaileak. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Beasain, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro eta Anoetako udalek administrari laguntzaile lanpostuak bete behar dituzte. Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 31 37 82.
Gidariak. Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu

mugagabeak. 943 31 37 82.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jauriaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informa zaitetz: 943 31 37 82.
Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jauriaritzan. Asteburuetan libre. 943 31 37 82.

MAITE ARTOLA ▶ KAZETARIA

Leire Aramendi - Berria ▶ Duela bi urte eta erdi hasi zen Maite Artola (Ibarra, 1972) kazetaria arratsaldeko Euskadi Irratiko *Mezularia* saioa gidatzen. Harrezkero, Rikardo Arregi eta Argia kazetaritza sariak irabazi ditu. Aurretik, Bruselan (Belgika) berriemaile lanetan aritu zen Artola lau urtez. ETAK su-etena iragarri zuenetik, elkarriketak, erreakzioak, analisiak... mugimendu handiko egunak izan dituzte *Mezularia* saioan.

‘Mezularia’-n hasi zinenetik kazetaritzako bi sari jaso dituzu. Nola ikusten duzu saioan egindako lana?

Profesionalki oso urte eskertuak izan dira. Aurretik, Bruselan egon nintzen korresponsal, eta bestela ere, kanpora atera izan nintzen, esaterako, Afganistanera. Kazetari moduan urte haiek gehiago bete ninduten. Baina hona etorri, *Mezularia* egiten hasi, eta jendeak zure lana baloratzea oso eskergarria da.

ETAK su-etena iragarri zuenetik, egun batzuk pasatu dira. Nola eragin du horrek eguneroko lanean?

Su-etenaren berri izan genuenetik ez gara gelditu. Egun hartan programazio berezia; ondoren, elkarrizketa egokiak egiten saiatu gara, eta jende interesgarriarekin hitz egiten. Ardura handiagoa sentitzen dugu kazetariok une politiko honetan; prozesu honekiko ardurarekin jokatu behar da.

Zein izan beharko litzateke komunikabideen rola hemendik aurrera?

Betikoa, baina orain erantzukizun handiagoarekin. Garai korapilatsuak datoz. Batzuetan informazioaren faltan, espekulazioaren erortzeko tentazioa izango dugu. Zuhurtzia handiarekin jokatu behar da, informazio guztiak alderatuz, espekulazioari tarte txikia eskainiz. **Irratiaz gain, telebistan ‘Galdezka’ saioa egiten hasi zara hilean behin, Jaime Otamendi eta Mikel Reparazekin. Zer moduz?**

Gero eta erosoago sentitzen gara hirurok elkarrekin. Bakotzak bere erara egingo luke elkarrizketa, eta zaila da elkarlanean prestatzea; baina gero eta hobeto ulertzen dugu elkar. Gustura nago. Ez nuen telebista medio bezala ezagutzen. Gaurkotasanari buruzko pertsonaiak ekartzen, eta batzuetan deseroso sentiarazten saiatzen gara. Batez ere, politikariek ari garenean; azalpenak eskatu behar dizkiegu egiten ari direnaz, eta bereziki, zerbait agindu eta egiten ez badute. **Elkarrizketatua estutzen saiatzen zarete, beraz.**

«Une politiko honetan kazetariok ardura handiagoa sentitzen dugu»



Askotan politikariek nahi dutena esaten dute, eta guk hori jasotzen dugu. Erosotasunean erortzea erraza da. Beraien kontraesanak agerian uztea eta azalpenak eskatzea garrantzitsua da.

Albistei buru berria duzue Euskadi Irratian: Aritz Agirre. Bere eragina nabaritzen hasi al zarete?

Bai. Lana egiteko eta gauzak hobetzeko gogoarekin etorri da. Esaterako, irratia asko ari da kalera ateratzen, albistea dagoen lekura. Aurreko astean *Mezularia* saioa Iruñetik egin genuen, Volkswageneren lantegiko arazoa dela eta. Euskadi Irratiko beste programa batzuk ere albistea dagoen tokira mugitu dira. Ez da bere lana bakarrik izan, baina haize freskoa beti ondo etortzen da. **Aurreko astean Iruñetik bezala, saio berezi gehiago egingo dituzue?**

Irratiak badu abantaila hori. Ez da telebista bezain makinaria astuna. Hori da gure plusa. Albistea dagoen lekuan gaudela erakutsi nahi dugu, eta jendeak gu gertu sentitzea.

Telebistan edo irratian sentitzen zara erosoago?

Prentsa idatzia ere probatu nuen *Euskaldunon Egunkaria*-n eta *Argia*-n. Medio bakoitzak bere abantailak eta desabantailak ditu. Prentsa idatziak gauzak hobeto azaltzeko aukera ematen du. Baina irratiak ematen duen bizkortasuna ez du inork ematen, eta nik adrenalina hori behar dut. Tentsio horrekin hazi egiten naiz; irratia da gehien gustatzen zaidana.

Hemendik kanpo berriemaile lanetan ere ibili zara.

Bai, Bruselan lau urte egin nituen. Gero, etxera itzultzean, erredakzioan ito egiten nintzen eta kanpora joateko aukera ikusten nuenean hala egiten nuen. Afganistanera, Jerusalemara, Ipar Irlandara... *Mezularia*-n gustura nago, baina kanpora joateko arra ez zait baretu. Aurrerantzean ere tarteka irteera puntualak egingo nituzke.

HITZA

ERANTZUKIZUNA

«Zuhurtzia handiarekin jokatu behar da, informazio guztiak alderatuz, espekulazioari tarte txikia eskainiz»

IRRATIA

«Bizkortasun hori ez du inork ematen, eta nik adrenalina hori behar dut, tentsio horrekin hazi egiten naiz»

BERRIEMAILE LANA

«‘Mezularia’ saioan gustura nago, baina kanpora joateko arra ez zait baretu»

I. hitza
marrazki lehiaketara

aurkeztu zinetenon marrazkiak Tolosako HITZaren egoitzan daude, Araba etorbideko 5.aren atzealdean. Jaso nahi dituzuenok pasatu zaitezket bertatik 09:00tatik 14:00tara.

VILLABONA ▶ KULTURA

Kartoizko kutxen biltegitik irudimenezko bira munduari

Markeliñe taldearen 'Kartoibiraka' lana ikusgai izango da gaur, Gurea aretoan

ERREDAKZIOA

Igandetan haur zinema eta antzerki saioak ekimenaren baitan, gaur antzerki emanaldia eskainiko dute Villabonako Gurea aretoan, 17:00etan. Markeliñe taldearen *Kartoibiraka* obra izango dute ikusgai hara joango diren ume guztiek.

Ikuskizun hau batez ere 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat bideratuta dago, «adin guztietako ikusleentzat gomendagarria» dela esan daitekeelarik; bereziki «gure tramankuluekin eta ilusioekin, antzerkiaren magiaz baliatuz», egileek diotenez, jolasari eta irudimenari ematen dion «astindua» nabarmena da.

Izan ere, Markeliñe taldearen sorkuntza eta lanaren ezaugarri ere bada «irudia eta soinuaren bidez hitzen gainetik —hitzik ez dago—» magia betetako giroa sortzea, aktoreak eta eskenetako osagaiak na-



Abenturaren zirrara, irudimena... eta, batez ere, jolasa. Aspertzeko betarik ez du ematen. HITZA



hastuz. *Kartoibiraka*-n batez ere jolas egitea proposatuko diete ikusleei: Villabonako ere izan daitekeen kutxen biltegi hiru lagun elkartuko dira.

Hauke «munduari bira ematera abiatzen dira, 80 kutxatan:

itsasontziz nahiz gameluz, Ozeanian zehar, nahiz Afrikan zehar, nahiz...» ibiliko dira, eta jendarteko lagunak ere eurekin eramanen dituzte, noski, «jasotzea baino, kutxa guztiak, dena hankaz gora jartzea, sor-

presak izatea eta amets egitea baita dibertigarriena». Edo ez?

Phileas Foggék munduari bira eman zionean baino eskuragarriagoa da, zalantzarik gabe, gaurko *bidaiaren* aurrekontua; sarrera 4 eurokoa da.

TOLOSA ▶

Erramuarekin batera, kanpo libreko lehen barazkiak

Udaberriaren eragina nabarmena da azokan eskaintza zabaltzen ari baita astetik astera

PABLO ALBERDI

Erramu sorta asko izan zen atzoko azokako postuetan, erosle askoren eskaerari kasu eginez, arrakasta handiko produktua izaten da eta urtaro honetan. Ereinotz adaskekin batera, barazkietan ere berrikuntza dezente ikusi genituen: aurtengo kanpo libreko aurreneko barazkiak agertu ziren. Datozen asteetan, babak eta ilarrak aterako dituzte.

Berdura plazako giroa eta eskaintza oso bizia da egun hauetan. Udaberriaren eragina nabarmena da, eta argi dago eskaintza mantendu ez ezik handitu ere egingo dela aurrerantzean.

Atzo aurtengo lehendabiziko hortentsiak ikusi genituen, hiru koloretakoak, 10 eta 12 euro tartean saldu zirenak.

AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura plaza		
Porru landarea	2,40	-
Aza kizkurra	6,00	-
Japoniar azalea	5,00	8,00
Geranio hiedra	2,00	-
Txinar kraelina	2,50	-
Salbia	1,00	1,20

Bertako produktuak

Intxaurra	2,50	4,00
Lekak	2,50	3,50
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	3,00
Kalabazina	0,72	-
Azalorea	1,00	-

Produktu ekologikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Barabuxuriak	1,60	6,00
Erremolatza	1,60	-
Letxua	1,00	-
Kogoiola	1,00	-
Ahuntz gazta	3,00	-

AGUSAN-EREA
JAIETEX

Gosari bereziak • Kaxuelak
Ogitarteko bariatuak
Plater konbinatuak
Pintxo aukera

OHARRA: menuak enkarguz
Euskalerrri plaza, 6 • TOLOSA
Tel.: 943 65 10 59



TXAKURRA GALDU DA

Galgo marraduna Tola izena du. Gaztea. Deitu 658 70 59 81 edo 655 74 66 06 zenbakira.

GURE ESKUBIDEEN ALDEKO
KONPROMISO SENDOA
EUSKAL HERRIAK NAZIDA

APRILAK 16
ABERRI EGUNA 2006

HERRIAN EKITALDIAK

EKITALDI NAZIONALA
IRUÑEAN
ANATZEN 2006

UDALBILIZIA

“Euskaldunek beren naziotasuna izateko eskubidea dute.”

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ez da kaleratuko
apirilaren 14tik 18ra, Aste Santuetako jai egunak direla eta.

EUSKALTELEKOA EZ BAZARA, EZ IRAKURRI

iragarki hau. Izan ere, Euskaltelen uste dugu xehetasun txikiek egiten dituztela handi harremanak. Horregatik, Euskalteleko kontratu bidezko zure mugikorrarekin (horrekin bakarrik) **doan hitz egingo duzu orain asteburu oro, urriaren 1a arte**. Euskaltel/Amena mugikor guztiekin, batere kosturik gabe, ezer egin gabe. Gurekin gutxienez 15 hilabete eramatea, beste baldintzarik ez duzu bete behar.

Dagoeneko egin duzu garrantzikoena: konpainia egitea.

Orain, gozatzeko garaia duzu.

ASTEASU ▶ KIROL ASTEA

IMANOL GARCIA

Aste guztian zehar ere protagonista izan badira ere, atzokan haurrei zuzendutako ekitaldiak izan zituzten Asteasuko Kirol Astearen. Atzokoarekin, Eskola Kirola eguna deitu zioten, ekitaldiei amaiera eman zieten.

Asteasuren eta Zizurkilaren arteko futbol partidekin hasi ziren ekitaldiak. Goizean goiz ekin zioten hitzorduari, Pello Errota eskolan. Lehendabizi benjamin mailako txanda izan zen. Gogo handiz jardun zuen neska-mutuez osatutako taldeak. Ondoren, alebin mailakoek jokatu zuten; partida horretan mutuez soilik osatutako taldeek ordezkatu zituzten beren herriak. Bi mailetan hoge minutuko bi zati egin zituzten. Aipatzekoa izan zen jokalariek erakutsitako kiroltasuna.

Futbol partidak amaitu eta gero, hainbat jolas prestatu zituzten Kirol Asteako antolatzaileek. Bakoitzean gaitasun ezberdinak landu behar zituzten: trebetasuna, bizkortasuna, abiadura, hesiak saltatzea, baloi pisutsuak erabiltzea eta slalom-a eginez baloia hankekin eramatea. Adin ezberdinekin taldeak egin zituzten, eta goiza ederki pasatu zuten haur eta gaztetxoek.

Bestalde, eta Kirol Astearen baitan, herenegun arratsaldean judo erakustaldia izan zen ikusgai frontoian. Asteasun ikasten ari direnek eta kanpoetik etorritako gerriko beltza duten hainbat judoek erakutsi zituzten kirol horren ingurukoak.

Azken egunean ere, haurrak protagonista

Eskola Kirola Eguna egin zuten atzo Kirol Astearen baitan; futbol partidak eta probak egin zituzten gaztetxoek



Baloia hankekin eramanez slalom-a egin behar izan zuten haurrek probetako batean. I. GARCIA



Benjamin mailakoek —ezkerrean— eta alebin mailakoek futbol partidak jokatu zituzten. I. GARCIA



ANOETA ▶

Festa alternatiboak prestatzeko bilera

Anoetan festa alternatiboak antolatzeko lehenengo bilera deitu dute etzirako. 19:00etan egingo dute hitzordua udaletxean. Festa alternatiboan bultzatzaileek parte hartu nahi duten eta lagundu nahi duten guztiei zuzendu die deialdia.

TOLOSA ▶

Batasunaren herri batzarra etzi, Kultur Etxean

Tolosako Batasunak herri batzarra antolatu du etzirako, «egungo egoera politiko garrantzitsua» dela eta. 20:00etan ekingo diote, Kultur Etxeko bigarren solairuan, eta bertan «egoera berriaren aurrean zer eta nola egin» aztertuko dute. Batasunak bilera horretan parte hartzeko dei berezia egiten diete herritarrei.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Oresa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Germikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

HERNIALDE ▶ AGENDA 21

Herri batzarra antolatu dute elkarteak, bihar

Iraunkortasunerako bidean zehaztutako helburuak aurkeztu eta ekintzak proposatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Agenda 21eko prozesuaren baitan, bigarren herri batzarra



• Lekunberrin, 2007. urtean eraiki behar diren 44 apartamentu eta etxebizitzak salgai.
• Leitza, eraikuntza berria, lau logelako, lau etxebizitzak salgai. Lokal komertzialak ere bai.
• Leitza, bigarren eskuko, lau etxebizitzak salgai.
• Leitza, 5350 m² tako lur-eremua salgai. Borda egiteko aproposa; 6.200.000 pza.
948 51 05 34 • 646 03 59 61
Amazabal 37 behe • Leitza

burutuko dute Hernialden, bihar. Herriko elkarteak egingo dute hitzordua, 20:00etatik aurrera. Prozesu honen bultzatzaileek herritarren partaidetza garrantzitsua dela nabarmendu dute, ardatzetako bat parte-hartzea dela adieraziz.

Joan den abenduan herritarren ekarpenak jasotzeko Agenda 21en lehen herri batzarra egin zuten. Bertan, udalerriaren alorrez alorreko diagnostikoa osatzeko ekarpenak jaso zituzten.

Diagnostikotik ateratako on-

dorioak abiapuntutzat hartuz, Hernialdeko iraunkortasunerako bidean jarriko duten helburuak definitu zituzte. Bihar herri batzarrean, helburu hauek aurkeztu eta ekintzen proposamenak landu eta eztabaidatuko dituzte, hainbat gairen inguruan: etxebizitza, hezkuntza, kultura, mugikortasuna, hondakinak, ura...

Prozesu honetan herritar guztien partaidetza ezinbestekoa dela azaldu dute, eta gogoratu herri batzarra parte-hartze gune irekia dela. Horrela, parte hartu nahi duten guztiak gonbidatuta daudela zehaztu dute, eta gonbita luzatu diete herritar guztiei biharko bilera azaltzeko.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Zaldia. 4 urteko zaldi Burguetea

salgai, Aralar mendikoa.

Telefonoa: 670 20 85 43.

Autoa. Rover MG ZR. Egoera

oso ona. Beti garajea. 105

zaldi. kilometro gubi. Deitu

649 54 59 87 zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Zer iruditzen zaizu Tolosako Udalaren kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza? Zerbaitetan hobetu behar al du? Sartu zaituzte webgunera eta eman zure iritzia.

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Frantziako espetxe politika «hiltzailea» salatu du Etxerat-ek

Altuna, Zubizarreta eta Goitia preso politikoen senideek eta lagunek egin zuten agerraldia

I. GARCIA

Frantziaren espetxe politika salatu zuen Etxerat-ek, «hiltzaile» deituz, atzo eguerdian Lizartzan egindako prentsaurrekoan. Haimar Altuna lizartzarrena, eta harekin batera gose greban izan diren Urtzi Zubizarretaren eta Oier Goitiaren senideek eta lagunek babestu zuten Etxerat-en agerraldia. Parisen iparraldean dagoen Meaux espetxean egindako gose grebati herenegun eman zioten amaiera hiru preso politikoei.

Etxerat-ek azalu zuenez, «Frantziak Espainiatik ondo

ikasi du», eta dispertsio politika bertan behera gelditzea exijitu zuen. «Ulertezina da askatasuna, anaitasuna eta berdintasuna lelotzat duen estatu batek politika kriminala mar txan izatea», gaineratu zuten, eta hauen «izaera politikoa onartzea, Euskal Herrira ekaritzea eta bizitzen ari garen prozesu demokratikoan parte hartu ahal izatea» exijitu zuen.

Meaux espetxeko zuzendariarekin izandako elkarrizketaren berri ere eman zuten agerraldian. «Jarrera gaiztoa agertu zuen, aurpegira barre eginez eta ezezko borobila eta betiko eman zigun egindako



Lizartzako udaletxe aurrean egin zuten atzo agerraldia hiru preso politikoen senideek eta lagunek. I. GARCIA

eskariei», agertu zuten. Presoei emandako dirua zergatik kentzen zieten galdetu eta «hori praktika arrunta zela» erantzun zien. Bestetik, presoak bata bestearen ondoan jartzeko eskariari uko egitea «segurtasun neurrietan» oinarritu zuten espetxeko zuzendariak.

Gose grebaren ondorioz, hiru preso politikoei fisikoki «paliza handia» hartu badute ere, «burutik ondo» daudela azaldu zuten Etxerat-ekoek eta «kalean lanean jarraitzeko eta aurrera egiteko» eskatu zutela gaineratu zuten. Martxoaren 20an hasi zuten gose greba eta

egun hauetako guztietako protestak kalte ugari sorrazazi die. Haimar Altuna lizartzarrek, esaterako, 42 kilo pisatzen ditu egun eta Oier Goitia Fresnesko ospitalera eramanez, giltzurdinatan arazoren bat ote duen ikusteko, analisiak emandako emaitzak direla eta.

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea bai, Barriola ez

Eskuzko Banakako Txapelketan txanponaren bi aurpegiak ezagutu dituzte pilotari leitzarrek

ERREDAKZIOA

Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriola pilotariak asteburu honetan izan dituzte Eskuzko Banakako Txapelketako partidak eta emaitza guztiz ezberdinak lortu dituzte. Bengoetxea VI.ak aurrera egin du eta Barriola, berriz, bidean gelditu da.

Bengoetxea VI.ak partida erraza izan zuen herenegun gauean Tolosako Beotibar pilotalekuan. Markagailuak hori erakusten du: 22-2 irabazi zion Imanol Agirre bizkaitarrari. Banakako Txapelketan parte hartutako aurreko bi alditan ezin izan zuen lehenengo partidatik

aurrera egin. Aurtengoan bai, lortu du lehen oztopoia gaintzea. Final-zortzirenetan txapelketa horretan eskarmentu handia duen Patxi Eugi izango du aurkari.

Agirreraren kontrako partidaren sekulako garrantzia izan zuen sakeak. Lehenengo hiru tantok horrela egin zituen Bengoetxea VI.ak eta jokaldi hori baliatu zuen partida osoan zehar zortzi tanto egiteko. Dirudieenez, pilotari bizkaitarrak ez zuen bere eguna izan, defentsa oneko jokalaria baita, tantoa asko borrokatzen duenetakoa. Huts asko egin zituen eta horiekin eta sakeekin bereganatzen

zuenarekin Bengoetxeak 12-0eko emaitza erraz lortu zuen. Une horretan egin zuen Agirre bere lehenengoa, eta bigarrenengoa sakez lortu zuen. Hortik aurrera leitzarria jaun eta jabe izan zen eta zuzenean 22raino joan zen. Esan bezala, hurrengo partida Eugiren aurka izango du Bengoetxea VI.ak eta segueruenik ez da hain erraza izango.

Eskuan min

Barriolak esperantzak zituen Banakako Txapelketa ona egiteko. Eskubiko eskuan ebakuntza egin zioten eta lau parti-

da bakarrik eginda jokatu zuen atzo Iñigo Leitzaren aurka, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Ezin izan zuen, baina, partida aurrera atera, eta bizkaitarrak 22-7 irabazi zion. Urduri samar ikusi zitzaion leitzarri, pilota ondo gozatu gabe eskuarekin. Arrazoiak partidaren bukaeran Barriolaren botilerok azaldu zuten: zazpi garren tantoaren inguruan pilota bat sartu zitzaion eskuineko eskuan eta horrek bere maila ematea ekidin zion.

Bere meritua ere izan zuen Iñigo Leitzak, dena ongi egin baitzuen: ondo sakatu —sei tanto egin zizkion Barriolari

sakez, honek bakarra egin zuen—, ondo erretoan, dominatzen jakin zuen eta baita tanto bukatzeko ere. Barriolak erakutsi zuen fisikoki ondo zegoela eta hanke erantzun zioten, baina pilota eskuarekin josten da eta min hartzeak guztiz baldintzatu zuen bere jokoa. Azkeneko tantoetan ikusi zen nabarmen eragin hori, kontraintzara sakatatuko pilota Barriolak ezkerreko eskuarekin erantzuten baitzuen. Aurreko urtean lesio batengatik ezin izan zuen parte hartu leitzarrek eta Banakako Txapelketara egindako itzulera ez da bate-re samurra izan.

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Jose M^a Luzuriaga Lasa
'Arroyo'

ATZO hil zen, 55 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Golan bego—

Bere arima zuzendaria; anai-arrebak: Pablo eta Maite Aizpuru, M^a Jesus eta Blas Izagirre; ilobak: Leire eta Aitor; izeba: Marisol Imaz (Domingo Luzuriagaren alarguna); lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetezela GAUR IGANDEAN, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parrokia elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

hilbidea ▶ Anai-Artean etxea
oharra ▶ gorpua Beasaingo Goleirri Beilatokia egongo da

SEGURA, 2006ko apirilaren 9a

hilberria ▶

Jose M^a Luzuriaga Lasa
'Arroyo'

Arrio hartu zaitu heriotzak menden kontentut bizi arren gure aldamenen nahiz oinez ibiltzeko gauza etziñaden paseatzen zenduan gurdin baten gañen orain beste munduan pakean atseden

SEGURA, 2006ko apirilaren 9a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 9a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



BIHARKO EGURALDIA



ELURRA ARALARREN



Guardetxe: gaur: ez / bihar: ez

Pagomari: gaur: ez / bihar: ez

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Villabona. Kartoibiraka. Markelñe antzerki taldearen eskutik. 17:00etan, Gurean.

DEIALDIAK

Anoeta. Festa alternatiboak antolatzeko bilera. Etzi, 19:00etan, udaletxean.
Hernialde. Udaltalde 21 Ernioaldea parte-hartze prozesuaren herri batzarra. Bihar, 20:00etan, elkartearen.
Tolosa. Aizkora apustua: Unai Otaño ibartarra eta Jesus Mari Lasa legorretarra Joxe Mari Olasagasti igeldorren aurka ariko dira nor baino nor. 12:30ean, zezen-plazan.
Tolosa. Tolosako Batasunak deitutako herri batzarra. Etzi, 20:00etan, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

Bihar
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
Gaur
10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina (errepikapena).
Bihar
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, agenda, HITZaren erreposoa, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. *Argizirin aitaldia*, Xorroxin irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Omenak eta kirola uztartuz

LEITZA ▶ Aurrera K.E. futbol taldeak hiru hamarkadetako jokalariek elkartzuz ez ezik jokatuz ere, horietako kide izan diren lagunak eskertu ditu festa eginez



Omenduak. Aurrera futbol taldean modu batera edo bestera lanean aritutakoak omendu zituzten. Ezkerrean, zendutako kideen senitartekoak; eskuinean, Garate, baloia jasotzen. JAIONE ASTIBIA



Hiru taldeak. Aspaldiko nahia betez, Aurrerako hiru taldeak elkartu ziren atzokoan Arkixkilen eta partiduxkak jokatu zituzten elkarren aurka. Aurrerazaletasuna eta umorea, irabazteko grinarekin. J. ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Arkixkil futbol zelaian txalo hotsa zen nagusi atzo arratsaldean. Hunkidura, oroimena, ezagutza, bat egitea, kirola, jolasa, alaitasuna...
Aurrera futbol taldeak arratsalde eta gau bete ekitaldi egin baitzituen: jokalaria modura, zuzendaritzan nahiz laguntzaile gisa taldeko kide izan ziren lagunak omendu zituzten. Txistularien soinuari, Aurrerako eskaini zieten bi dantzarik eta oroigarriak jaso zituzten Salbarrediren, Arzallusen eta Gomezen senitartekoek, garai desberdinetako zuzendaritzako kideek eta babesleek. «Tal-dearen jarraitzaile sutsua iza-teagatik», Juan Karlos Garateri Aurrerako jokalariek sinatutako baloia oparitu zitoten.
Ezagutza hau 80. eta 90. hamarkadetako eta egungo taldeetako kideak inguruan zituztela jaso zuten.
Handik aurrera, xarren eta gazteen arteko futbol jokoari ekin zitoten, gaueko afarirako gosea egiteko ere.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ane Amundarain Davila (Ibarra). Atzoko partez zorionak aita, ama eta Aitorren partetik. 4 muxu.



URTE ASKOAN
Naroa Leonet Tadeo. Gaur 6 urte. Zorionak ebekoen partetik.



ZORIONAK
Amaia Diaz de Guereñu Zabaleta. 10ean jaino zen gure Amaia kultura. Muxu bat Asier, Itziar eta Javierren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea


▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletzeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberrak...

hitza txokoa **lagunen** ▶ HITZAko harpidedunen artean

Tolosako Lizarribar oinetakoan
DENBORALDI BERRIRAKO OINETAKOAK
zozketatuko ditugu.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero